

# KANPAINAREN OINARRIAK

## ZURE ASEGURUAK GEHIAGO EMATEN DIZU, AUKERAKOAK

Agiri honek **Zure aseguruak gehiago ematen dizu, Aukera** kanpaina jaso eta zehazten du.

Kanpainaren helburua da Caja Laboral Bancasegurosek bitartekoturiko auto-, etxe-, bizi- eta osasun-aseguru berrien polizak kontratatzea. Poliza horiek, konpainiaren kontratazio-arauak ez ezik, kanpainaren baldintzak ere bete behar dituzte.

### 1.- Kanpainaren datak

Sustapena 2024ko otsailaren 26an hasi eta 2024ko uztailaren 31n amaituko da. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edonoiz, horretarako bidezko arrazoirik bada. Sustapenaz baliatu ahal izateko, 2024ko otsailaren 26tik 2024ko uztailaren 31ra bitartean kontratatu behar dira polizak. Efektu-datak, berriz, 2024ko abenduaren 31ra arteko muga izango du.

### 2.- Eskaintza eta baldintzak

Bezeroek abantaila hauek izango dituzte, kanpainaren indarraldian berorren baldintzak betetzen dituzten kanpainako adarretako polizaren bat kontratatuz gero:

Kontratutako adar hauetako aseguru berri bakoitzagatik zenbateko bat jasotzea:

- **Auto Asegurua.** Auto-aseguru berria kontratatzeagatik **100 €** itzuliko dira, edozein modalitatetan (Arrisku Orotako frankiziarik gabea eta Hirugarrenentzako Oinarrizkoa izan ezik), betiere aseguruak 250 €-tik gorako prima badu eta kanpainaren gainerako baldintzak betetzen baditu. Sustapenak lehen kategoriako ibilgailuentzat balio du, betiere gidariak 25 urte baino gehiago baditu, 2 urteko gidabaimena badu, ezbeharrik gabeko espedientea SINCon, gutxienez 3 urteko informazioarekin, eta diruzko obligazioak betetzeari edo ez-betetzeari buruzko fitxategian ez badago. Seguros Lagun Aroren kontratazio-arauak bete behar dira.
- **Etxe Asegurua.** Etxe-aseguru berria kontratatzeagatik **60 €** itzuliko dira zenbait modalitatetan (Optimoa, Optimoa ON, Optimoa+ eta Plus), betiere prima 200 €-tik gorakoa bada, edukizaileren kapital aseguraturua gomendatutakoa edo handiagoa bada eta edukiaren gutxienerako kapitala 20.000 €-koa edo handiagoa bada, salbu eta gomendatutakoa zenbateko hori baino txikiagoa bada. Sustapenak alokairurako ez diren etxebizitzetarako balio du, eta Seguros Lagun Aroren kontratazio-arauak bete behar ditu.
- **Bizitza Asegurua.** Bizitza-aseguru berria kontratatzeagatik **100 €** itzuliko dira zenbait modalitatetan (**+Bizitza, Bizitza Emakumea edo Bizitza Optimoa**), betiere prima 200 €-tik gorakoa bada. Eskaintza ezin da beste kanpaina eta sustapen batzuetan erabili. Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira. Aseguruak ez dira lotuta egongo LABORAL Kutxaren finantza-eragiketa (hipoteka-bermedun mailegu edo berme pertsonaleko mailegu) berriekin. Seguros Lagun Aroren kontratazio-arauak bete behar dira.
- **Osasun Asegurua.** Osasun-aseguru berria kontratatzeagatik 100 € itzuliko dira zenbait modalitatetan (Más Salud, Más Salud Plus, Más Salud Óptima, Más Salud Familias eta Más Salud Familias Plus), betiere prima 250 €-tik gorakoa bada. Sanitasen kontratazio-arauak bete behar dira.

**Gainera, AUTO, ETXE edo BIZITZA aseguruaren kanpainaren baldintzak betetzen dituen polizetakoren bat Multiaseguru Kontuari lotuta badago, 20 € gehiago itzuliko dira:**

- **Multiaseguru Kontuari lotutako Auto Asegurua:** 120 € itzuliko dira kontratatutako aseguru berri bakoitzeko.
- **Multiaseguru Kontuari lotutako Etxe Asegurua:** 80 € itzuliko dira kontratatutako aseguru berri bakoitzeko.
- **Multiaseguru Kontuari lotutako Bizitza Asegurua:** 120 € itzuliko dira kontratatutako aseguru berri bakoitzeko.

Sanitasen osasun-polizak ezin zaizkio lotu Multiaseguru Kontuari.

### 3.- Beste baldintza batzuk

- Ordainketak LABORAL Kutxan edo Multiaseguru Kontuan egon behar du helbideratuta.

# KANPAINAREN OINARRIAK

## ZURE ASEGURUAK GEHIAGO EMATEN DIZU, AUKERAKOAK

---

- Aseguruaren iraupena urtekoa izango da, eta ordaintzeko modua ere bai, salbu eta Multiaseguru Kontuarekin lotu badaiteke eta lotzen bada.
- Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- Abantailak lortzeko eskubidea ematen duen poliza ordaindu ezean, LABORAL Kutxak eskubidea izango du bezeroaren kontuan egindako ordainketa berreskuratzeko.
- LABORAL Kutxaren kanal guztien bidez kontratatzen diren aseguruetarako balio du eskaintzak.
- Eskaintza hau ezin da beste kanpaina edo sustapen batzuekin batera erabili.
- Kontratutako aseguruaren ordainagiria kobratu eta 60 eguneko epean egingo dira diru-itzulketak.
- LABORAL Kutxaren kanal guztien bidez kontratatzen diren aseguruetarako balio du eskaintzak.
- Muga: 3.500 kontratazio auto-aseguruetan, 2.500 kontratazio etxe-aseguruetan eta 400 kontratazio bizitza-aseguruetan.

#### 4.- Sustatzailea

Aseguru hauen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da, banka-aseguruetako operadore lotetsia, eta Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Arriskuaren aseguratzailerak: Seguros Lagun Aro SA, Seguros Lagun Aro Vida SA eta Sanitas SA. Erantzukizun zibila eta finantza-ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera. Kotsultatu aseguratzailerak hemen: [www.aseguruak.laboralkutxa.com](http://www.aseguruak.laboralkutxa.com).

#### 5.- Aplikazio-eremua

Kanal hauek erabiliz kontratatutako aseguruetan aplikatuko da kanpaina: [www.laboralkutxa.eus](http://www.laboralkutxa.eus) webgunea, aseguruetan espezializatutako telefono bidezko arreta-zentroa (901 100 200) eta Seguros Lagun Aroren Banka-aseguruetako Operadore Lotetsia den Caja Laboral Popularren banku-banaketarako sarea —Bitartekarien Administrazio Erregistro Berezian dago inskribatuta, C572F20022109 zenbakiarekin—.